

## **Hildakoen Entziklopedia**

Danilo Kis

Itzultzailea: Monika Etxebarria

2005

Alberdania-Elkar

### **Generoez harantzago**

Aurretik idatzitakoa ezagutzea ez dakit ezinbesteko baldintza den ezer idazteko. Zernahi idazteko ez, bistan da, baina bai ordea literaturan ekarpenen bat, hots, aurrerapausoren bat egin nahi izatez gerotan. Eta Danilo Kisen eleberri honetan ezer nabarmentzen bada horixe da hain zuzen, ondo presente baitago liburu osoan zehar aurrekoen heredentzia literarioa eta jakintzazkoa. Helburua ere horixe baitu, besteak beste, Kisek: helburu entziklopedikoa.

Bederatzi kontakizunek eta hitz-atze batek osatzen dute liburua. Danilo Kisengana aurrenekoz hurbiltzen denarentzat lehenik hitz-atzea irakurtzea onena, egileak berak jarriko baikaitu bere asmo, iturri eta abarren jakinaren gainean. Eta asmoez ari garela, ezin aipatu gabe utzi Kisen asmo nagusiak: generoak gainditzea, estiloaren gailentzea eta literatura osoa ez ezik, jakintza eta mundu osoa biltzeko helburua. Anbizio handiko helburu horiek Borges eta Flaubert dakarzkigute nahitaez gogora.

Kontakizunak arras desberdinak dira erregistroz, formaz eta estiloz; batuta daude, ordea, elkarrekin bai gaiarengatik –herio–, bai eta kontakizun bakoitzaren amaiera hurrengoaren hasierarekin lotuta dagoelako zenbait keinu formal nahiz tematikoren bitartez. Detaile oro baita garrantzitsu Kisen idazketan. Hala, bederatzi kontakizunetako bat ("Hildakoen entziklopedia" izeneko, hain zuzen) eleberriaren barruan txertatutako beste eleberri bat dugu aldi berean. Polifonia bat dugu aurrean, estilo eta erregistroren polifonia, beti ere osotasunaren, asmo entziklopedikoaren bila. Ez, ordea, asmo entziklopediko hutsa, espiritual edo onkologikoa baizik, gai nagusia –heriotza– behin eta berriro errepikatzen baita historia osoan. Errepikapen hori konkrezioaren bidez gainditzen du Kisek. Hala, esate baterako, banitateari buruz irakur daitekeen gauzarik interesgarrienetakoa aurki dezakegu "Maisuaren eta ikaslearen istorioa" kontakizunean.

Ez du lan txikia hartu bere gain Monika Etxebarria itzultzaileak Kisen obra hau itzultzen, zail izango baitzuen, noski, jatorrizkotik nahi beste aldentzea, distantzia gehixeago hartzea. Gertutik jarraitu behar horrek detaile guztiak zaintzera eraman du eta nabarmentzekoa da, alde horretatik, adjetibazioan egindako ahalegina.

Literaturaz eta bizitzaren ikusmolde berezi batez gozatzeko aproposa benetan "Hildakoen entziklopedia", asebetegarria.

*Mikel Garmendia*

